



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

553. zkia.
XIII. urtea
2005eko abenduaren 2a

Gotzon Garate omenduko dute Durangoko azokan

Argazkia: Gerediaga Elkarte

ARAMBURU



BITXIDENDA

OPARIEN EROSKETAK EGITERAKOAN KONTUTAN IZAN,

AURTEN ERE, 15 €KO GASTUAGATIK

TXARTEL BAT EMANGO ZAIZULA,

ERREGE BEZPERAN EGINGO DEN

URREZKO BI ERLOJUREN ZOZKETARAKO

Azken sarituak



M^o CARMEN ZUBIAURRE



ANGEL BLANCO

AURTEN ZU IZAN ZAITEZKE!!!

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35



- Tratamendu terapeutikoa
- Kirol lesioak
- Erlajazio-masaiak
- Eskuzko drenaje linfatikoa "Vodder Metodoa"
- Osteopatia
- Inkontinentzia prebentziorako ariketak
- etab.



- Zentrora heltzeko eragozpen fisikoa egongo balitz, etkez-etxeko zerbitzua eskaintzen da.
- Kontaktuan jarri nahi ez gero, 15:00etatik 21:00etara zenbaki honetara dei egin dezakezu.

Tel.: 943 53 19 53
Mugikorra: 669 565 745



Jausoro, 6 behea
ELGOIBAR



UNAI VILLENA

Azkeneko aldiz itzulerari buruz idatzi nizun. Ez dakit gogoan izango duzun, baina nire hitzetan tristura edo desengainua nabaritu zenuen. Oker zeunden; bertigoa sentitzen nuen. Zuk ere sentituko zenuen inoiz bertigoa, ezta? Etxeko sukaldean obrak egin eta galdu zenaren istorioa kontatu zenidan. Beste asko galduta bizi dira eta ez dira ohartzen, ze pena. Nik behintzat oso ondo dakit non nagoen. Orain Bilbon bizi naiz. 7 urtez egunero autobusean joan-etorri ibili eta gero, karrera amaitzera noan urtea izango da nire lehenengoa ikasle pisuan bizitzen. Arratsaldez klaseak, goizez lan. Egunean 4 ordu sartuta irabazten dudanarekin, alokairua ordaindu eta ondo bizitzeko ematen dit. Duela pare bat asteko azterketa partziala nota onarekin aprobata dut. Nire urtetan inoiz baino jende gehiagok zoriondu nau. Inspirazioko gau batean ipuin bat idatzi dut. Munduaren bestaldean bizi den lagun batek eskutitz bat idatzi dit. Neska batek zinera gonbidatu nau. Hiitzaldi bat ematea proposatu didate. Urtebeteko ilobak Unai esaten ikasi du. Poz-pozik bizi naiz: ia kaka egiteko astirik gabe, hori bai, baina primeran. Hala ere, horrek ez du esan nahi gauzak daudenean ondo daudela iruditzen zaidanik; nire zoriontasunetik haratago begiratzeko gai naiz eta ez litzaidake batere inportako bidaia luze batetik bueltan guztia aldatuta aurkitzea, ez horixe. Bitartean neu saiatuko naiz eskura daukana aldatzen.

ZOZOAK BELEARI...

«la kaka egiteko
astirik gabe
baina poz pozik
bizi naiz»

UNAI

«Bizitzan
obligazio bat
daukagu,
zorionsu izatea»

ALAITZ



ALAITZ VIVES

Bi pertsona zorionsu parez pare! Hau kasualidadea! Zenbaitentzat "ilusoa" pareta izango gara, ezta? Pozik bizitzea, hortaz konturatzea eta disfrutatzeke gaitasuna izatea ez da gutxi. Izan ere lagun batek halaxe esaten dit beti; bizitzan obligazio bakarra daukagula, zorionsu izatea eta pentsa ze denbora gutxi ematen ditugun gure bizitzako helburua izan beharko litzatekeena lortzen. Hala ere, Unai, ez nuen nik asko uste gabon-jaien atarian, elurrak ingurua zuri-zuri eginda utzi duen honetan zoriontasunaz jardun behar genuenik.

Kafetegian sartu da eta "arratsaldeon!" esan ordurako barraren bestaldetik Blancak irrifartsu erantzun dio "hori da katarroa dakartzuna Don Pedro". Don Pedrori irrifarrea eta estula batera atera zaizkio. Ez zegoen beharrik, eztarria itxita, begi txiki-txikiak, eta sudurra gorri-gorri. Blancak ikusi ordurako jakin du negu honetako lehen katarroa dakarrela Don Pedrok. Arratsalderoko kafesne beroa utzi dio barra gainean. Don Pedrok bi eskuez heldu dio katiluari. "Hobe zenuen ohean goxo-goxo geratu bazina. Hotz egiten du". Don Pedrok sorbaldak altxatuz erantzun dio.

Blanca barraren beste muturrerantz urrundu denerako Don Pedrok, niri begira, irrifartsu zera esan dit: "hauxe dut eguneko unerik gozoena".



POZAREN POZETZ JAUZIKA HASTEN BAZARA, KONTUZ,
IÑORK ZORUA OINEN AZPITIK KENTZEN OTE BADIZU ERE



Stanislaw Jerzy Lec

PNV-EA, errepresiorik ez!

Garesti ordaintzen ari gara Udal Gobernuaren burugabekeria. Sigmako obraren 700.000 eurok agerian uzten dute arazo hau herriari kostatzen ari zaiola diruaren zati bat, baina nork zenba ditzake dendetan eragin dituen galerak? eta Udal langileen (Udaltzainak, bigada...) orduak?

Udal Gobernuak merkadilloa lekuz aldatzeko arazoi nagusizat trafikoa eta plaza libratzea jarri zituen bere garaian. Argi geratu da beste arazoi batzuk ere badituela, arazo hauek gaudituta baitzeuden elizpeko merkadilloarekin (baita denei plaza txikian lan egiten utzita ere). Gaur egun gai honetan Udalak duen helburu bakarra merkadilloko langileen lana oztopatzea da eta hau larria bezain tristea da.

Benetan larria iruditzen zaigu Udalak hartu duen jarrera errepresiboa. Heritarrak eta langileak isilarazi nahi izan ditu eta honetarako denak balio duela iritzi dio: ertzainez betetzen du herria, plaza kolapsatzen du Udal ibilgailuz eta hesiz, udaltzainak erabiltzen ditu merkadilloko langileak mehatxatu eta iraintzeko, saltzaile eskirrol taldetxoak baliatzen du aurpegia garbitzeko eta kaleko kartelak kentzeko enpresa bati dei egiten dio egun batean bai eta bestean ere bai. Udal langileek eta udaltzainek ez al daukate beste lanik? Hau al da beraien lana? Klean era guztietako kartelak izaten dira. Nork esaten dio kaleak garbitzen dituen enpresari zein kartel

kendu eta zein ez? Hau al da arazoa konpontzeko egiteko prest zaudetena?

Heritarrak Elgoibar Bizirik-ek antolatutako herri galdeketa argi eman genuen gure iritzia eta Udalak entzungor egin eta gainera gure eskubideak behin eta berriz zapaltzen ditu. Biltzeko eskubidea, adierazpen askatasuna eta batez ere, langileen eskubideak etengabe urratzen ari da zentzugabeko indar erakusketa errepresibo honekin. Merkadilloko langileek lezio ederra eman digute guztioi, lanerako eskubidearen defentsan, duintasun eta kemen izugarria erakutsi baitute. Besarkada bero bat guztiei. Merkadilloa Plazan!

IÑAKI ODRIUZOLA eta IÑAKI BONGOETXEA
EINBIOU

Erealitate anitza

Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusia azken txanpan sartua den honetan, irakurle, ariketa mental bat egitera animatzen zaitut: ez dizut eskatuko doinu, neurri eta eritima egokietan, ondo jositako bertsorik osatzeko, baina bai bertsolariek egiten dutenaren arira, besteen larrian jarri eta beraien barnean bidaiatzeko. Sar gaitezako preso baten, bizkartzainekin doan mehatxatu baten, 18/98 makrosuarioko auzipetu baten, ertzain baten, drogazale baten edo-eta Senegaldar etorkin baten larrian. Ez dizut eskatuko antzezterik, zure barnean duzun beste zu hori bilatu eta aurkitzea baizik:

izan ere, denok dugu gure barnean jeltzale bat, ezker abertzaleko kide bat, psoekide bat, etorkin bat, preso bat, mehatxatu bat... bilatu eta beraien larrian bidaiatzean datza gakoa; begi bakarrarekin begiratzeari utzi eta bi begiekin begiratzean alegia. Begibakar askotxo eta "bertsolari" gutxi ditugu herri honetan, eta azkenaldian bizi ditugun rirrafe eta ezinikusi asko, horren ondorio direlakoan nago. Asko edo gutxi kostatu, saiatu gaitezako ariketa hau egiten, besteak hobeto ulertuko ditugu eta.

AA - 72575981-X

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko BARRENen (552. alea) Udaltzaingoak hiru auto berri erosi dituela aipatu genuen, baina erosketa horren prezioa gaizki zegoen. 227.000 euro horien bamean Brigadak erositako kamioia ere sartzen da. Udaltzaingoarentzako autoak erosteko 94.644 euro ordaindu ditu Udalak.

OHARRA

Datozen bi asteotan Gabonetako ale berezia prestatzen jardungo du BARRENeko lantaldeak, beraz ez da alerik egongo. Hurrengo alea abenduaren 23an jasoko duzue.



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Garatza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurmuxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urtzar, Koke KE, Ururzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESKERRA ZAHARRA** Gatzen Gariteren liburirik **INPRIMATEGIA** Geru **TRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurritzakako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

KEXAK

• Herritar batek ondorengo kexa ekarri digu: "Berriz ere **Jaime Arrese frankistatzat aurkezteko ahalegina egin du herritar batek**. Eta darabilen argumentua lehen Ezker Abertzaleak erabilitako bera: Herriak ez zuen hautatu, beraz, ez zen alkate demokrata, frankista baizik. Eta semeek ondo erantzun bazuten ere berriz esango dut nik. Jaime Arrese Elgoibarren alkate zen garai berean Jose Luis Elgoro alkate zen Bergaran, Ezker Abertzaleko militante eta gidari historikoa, eta 18/98an prozesatua dagoena. Beraz, Jose Luis Elgoro frankista zen? Ez, noski. Zuen matematikak (frankismo garaian alkate = frankista) ez duelako hain erraz funtzionatzen. Gehienontzat hilketa hori erabat gaitzesgarria zen, baina batzuk badirudi frankista zela esanez hobeto irensten duzuela hilketa, eta herritar maitatua zela entzuteak min egiten dizuela. Horregatik Barren-i eskatzen dizkiozue kontuak, irakurri nahi ez duzuen jarri dizuelako begi aurrean. Presoen inguruko albisteak normaltasun osoz irakurtzen ditugu Barren-en, baina batzuek zuen gustoko albisteak bakarrik nahi dituzue, eta hori ez da herri aldizkari bat, hori panfleto bat da".

GALDERA

• **San Migele auzoan dagoen frontoia auzotarrek bakarrik erabili al dezakete?** Herritar batek esan digunez, San Migelera joan ziren paletan jokatzera eta frontoian ez zegoen argirik. Bertako elkartetik pizten da argia, eta inor ez zegoenez, ezin izan zuten jokatu. San Migeleko alkatearekin, Javier Arrizabalagarekin, hitz egin dugu, eta esan digunez, San Migeleko frontoia herritar guztiak erabili dezakete, eta elkartean norbait baldin badago, ez dago argia pizteko arazorik, gainera argia ez diote inori kobratzen. Hala ere, argia pizteko botoia ezin dutela kanpoan jarri adierazi digu, bestela edozein momentutan piztuko luke jendeak, eta faktura bereaiek ordaindu behar dute.

TXALOKAK

• Musika zale batek **Elgoibarko Musika Eskolako kideak** txalotu nahi ditu Santa Zezilia Egunean eskaini zuten ikuskizunagatik: "Musika eskolako Trikitixa eta Pandero ikasleak txalotu nahi ditut, eta beraien irakasle diren Anabel eta Aintzane, azaroaren 21ean egin zuten kalejirarekin oso giro alai jarri zutelako gure kaleetan. Mila esker eta jarraitu horrela! Era berean, kalejiraren ondoren kontzertua eskaini zeniguten Musika Eskolako ikasle eta irakasleak ere txalokak merezi dituzue. Mila esker guztiok!".



Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12

RIP

PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA

DVD Erroportajea-olkarrizketak
Kontzertuak
Argazki galeria
Bestelakoak

CD Argitaragabeko 14 abesti

DVD-CD SALSAI

www.hotsak.com



URRUZUNOREN Luma

Trenak

Doazen bezala datoz, denborak, hala ere, ez du itxoiten eta galdu duzun tren hori ez da berriro itzuliko, itzuliko dena beste tren bat izango da.

Sarritan, ez duzu gauza bakoitza bere momentuan egiten; joaten utzi diozulako edo ezinezkoa egin zaizulako, trenak badaki alde egiten eta alde egiten dizu. Inork ihes egitekotan, ordea, nork egiten du ihes zuk ala trenak? Une desberdina izateak maitasuna maitemin, emozioa monotonia eta konfiantza mesfidantza bihurtu ditzake, baita alderantziz ere. Momentu bakoitzak bere xarma duelako, egokitzen ikasi behar duzu, alferrik baita tren hurrengo orduan hartu duzunean aurreko trenak zituen eserlekuak nahi izatea, ipurdia tokatu zaizun eserleku horretara egokitu behar duzu.

Horra hor proposatzen dizudan erronka: atzera begiratu gabe momentua bizi eta tren hurrengo hartzen saiatu, hori bai, ez pentsa bizipena berdina izango denik, desberdina izango da bai, baina ez dauka zertan okerragoa izan.

Ane Odria



BAI ESAN?

MAIDER GASTESI

ERROTATXO
ELKARTEKOA

Abenduaren 1ean HIESaren Mundu Mailako Eguna ospatzen da, eta urtero bezala, Errotatxo Elkarteak ekintza desberdinak antolatu ditu. "Positiboak gara" lemapean, seropositiboekiko berdintasuna aldarrikatu eta mezu positiboak zabaltzen saiatuko dira. Errotatxotik HIESaren prebentzio asteko ekintzetan parte hartzera deitzen dituzte herritarrik, eta bestalde, Errotatxoko kide izateko bolondresak behar direla aipatu digute. Interesatuak 943 74 24 47 telefonora deitu dezakete.

- **Zein da HIESaren egoera mundu mailan?** Egoera oso larria da, batez ere Afrikan eta orain Hego eta Erta Amerikan ere egoera larritzen hasi da. Kulturalki traba handiak ditu HIESaren prebentziorako dauden sistemak eta zailena pertsonen sinismenak eraldatzea da.
- **Medikuntzan lortu al da aurrerapenik?** Bai, bizi kalitatea luzatzea lortu da, baina tratamenduak oso gogorrak dira. Ildo honetatik ari dira lanean, batez ere.
- **Zein da HIESaz kutsatzeko modu ohikoena?** Infekzioen %90a sexu haerrematan heterosexualen bidez gertatzen dira, eta momentuz hori ekiditeko modu bakarra, kondoiaren erabilera da.

komikia

Hil da gero... 2-0



Kokoe OAO

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa


«Lana»

18tik 22 urtera sendatu nitzan, eta 22 urtekin hasi nitzan tallarrian lanian, Arananian. Almazanian egitten naban lana. Orduan 4.500 pezeta kobratzen nittun hillian. 12 urte egin nittun Arananian, eta handik, gero AGME enpresara jun nitzan. Han, beste 12 edo 13 urte inguru egin nittun. Epoka hartan ere lana ez zaghan sobran. Arananian gauzak bihurritu egin ziran, eta alde egin bihar izan naban, eta AGMEk ere kiebria jo zaban, eta kalia geratu giñan 1981-ian. Lan askoko epokak ezagutu dittut, baiña lan ezak ere bai.

Nere semia, Batxillerra amaittuta, unibersidadera juteko zaghan, eta ni kalia. Honen ostian biqjante hasi nitzan lanian Aranburuneko relojeruakin. Bera saltzen, eta ni txofer eta trastiak erauaten. Santander, Iruñea, Irun... hamen bueltan ibiltzen giñan. Egunian

200 kilometro inguru. Hiru edo lau biqje Madridera ere egin genduzen. Nunbaitetikan dirua etara bihar zan, eta aurrera egin gendun.

Semiak Eskoriatzan ikasi zaban magisteritza, eta Alecop-en lana egitten zaban diru pixkat etaratzeko. Karreria amaittu zaban arte egun latzak pasau genduzen. Nere andriak etxian egitten zaban lana, eta jertsia egitten, baiña tallarrian ez. Lehen, lanian zabizen andrak ezkontzen ziranian dote bat kobrau eta laga egitten zeben lana. Gaur egun diferentia da, eta neri ondo begittantzen jata. Emakumia dalako ez dago zertan etxian geratu. Lehen ume gehixago ekartzen zan oin baiño, eta etxian lan gehixago zaghan. Gaur etxia erretzago moldatzen da. Gaiñera, biharrezkua da emakumiak bere lana eukitzia, bere autonomixia bihar dau.



[GURE BERBAK]

Esapide adierazgarriak (10)

Gaurkuan ere, esamolde adierazgarriak beste adibide sail bat. Zeozeren aurrian harriduria, mirespena, mezpretxua, adostasuna, desadostasuna, poza, hasarria, poza... era enfatikuan adierazteko erabiltzen dira esamoldiak. Burlak, maldizuiak, interjekziak, ironiak ere sartuko nittuzke multzo honetan.

- *Semiak etxok asko balixo fubolerako, baiña zela ltxau berak!*
- *Jausi nitzan portalian... malla bat, azkenengo zera falta, eta ez dot ba haura huts egiñ!*
- *Irukurutzetara ere makiña bat bidar jun izan gera gaztetan.*
- *Makiñatxo bat urte pasau dittuk zinera batere juan gabe!*
- *Ño! Ez dok merkia gaur egunian etxia erostia!*
- *Motellak! Hori dok ganoria, hori!*
- *Ojo gero, eh! Ez hadi kontuz ibilli!*
- *Hori dok pasadia eman ziona Bartzelonak Madrixari lehengo egunian!*
- *Ondo al zabiz? - Bai, ondo samar. - Hori da printzipalena!*
- *Asko maitte jon anai txikixa. Etxakan, ez, saltzeko!*
- *Kontuak esan eta esan ibiltzen don hori. Ez dagon, ez, ixiltzeko!*
- *Hik dakak, hik, sanidadia, Patxi! Ordu bixetan Bilbon egon bihar, eta ordu bat ferdixetan Elgoibaren hago!*
- *Hori don neska lotsagabia, hori. Sekula halakorik!*

Jesus Mari Makazaga

**GAZTEEN SORMENA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA
SUSTATZEKO LEHIAKETA**

**EUSKAL HERRIKO
I. IKUS-ENTZUNEZKOEN RALLIA**

Elbar, abenduak 17

Lehiaketaren oinarriak: www.topagunea.org

2005

TOPAGunea
EUSKAL HERRIKO LEHIAKETA

etxak
EUSKAL HERRIKO LEHIAKETA

Kalitateak

Elkarrekin


Elkarrekin

Elkarrekin

Elkarrekin

«Beharrezkoak ez diren hizkuntzak galdu egiten dira luzaroan»

Lizentziaduna, doktorea, jesuita, hizkuntzalaria, idazlea, irakaslea... hori guztia da Gotzon Garate. Hori guztia eta askoz gehiago. Eta ororen gainetik, euskalduna eta euskaltzalea. Orain gutxi Deustuko unibertsitatean egin diote omenaldia, eta hilaren 8an, Durangoko Azokan sarituko dute. Baina atariko hau baliatu nahi dut, titulu horien guztien oinarrian dagoena hona ekarri eta haren inguruan hitz bi egiteko. Durangoko Azokan Argizaiola saria jasoko du eta hori aitzakia hartuta galdetu diogu Gotzon Garateri. Azken lanen inguruan hitz egin digu, etorkizuneko asmoez ere bai. Saridun izateak hautaturiko bidean aurrera egiten lagunduko dio, egindako esfortzuen aitortzea baita saria.




• Durangoko azokan omenaldia egingo dizute. Ekitaldia berez izango da handia, baina zuretzat, zer esan nahi du?

Durangoko Azokan emango didaten saria ohore handia da niretzat. Eta oroitzapen pozgarriei lotua dator. Egin ere, ni Durangon egin nintzen euskaltzale. Hamabi urterekin joan nintzen Elgoibartik Durangora jesuiten ikastetxean orduko batxilergoa ikastera. Elgoibarren ez zegoen horrelako ikastetxerik. Ni euskalduna nintzen, baina euskaltzale ez. Ikastetxean zeuden bi azpeitiarri esker, euskaldun kontzientzia hartu nuen. Bizitza guztirako eragin erabakigarria izan zen. Orduetik aurrera neure bizitza osoan euskararen alde lan egiten saiatu naiz.

• Euskal Filologia Unibertsitate ikasketak sortu zenituen Deustun...

Nire liburugintza neure irakaskintzari lotua ibili da. Marxismoa irakasten nuen Deustuko unibertsitatean eta marxismoaz idazten hasi nintzen. Literatura maite nuen, ordea, eta tarteka-marteka ipuinak eta eleberririk idazten nituen. Gero, Euskal Filologia sortu nuenean Deustuko unibertsitatean, euskal hizkuntzalaritza ikasi nuen. Munduko lau hegaletan ibilia naiz eta ibilaldi horiei buruz idatzi izan dut.



Biografia laburra

Gotzon Garate Goihartzun Elgoibarren jaio zen 1934. urtean. Idazlea eta irakaslea da eta euskalgintzan aritu da batez ere. Honako titulu hauek ditu:

- **Filosofian doktorea**
Madrileko Unibertsitate
Complutensean
- **Teologian lizentziaduna**
Insbruckeko Unibertsitatean
- **Filologia Erromanikoan lizentziaduna**
Deustuko unibertsitatean
- **Marxismoan espezializatua**
Friburgoko Unibertsitatean
bi urtez
- **Euskal Literaturan katedraduna**
Deustuko unibertsitatean

1955. urtean hasi zen euskaraz idaz-ten eta hainbat artikulu argitaratu ditu ondotik, "Jesusen Biotzaren Deia", "Euzko Gogoa", "Egan", "Zeruko Argia" eta beste hainbat aldizkari eta egunkaritan.

1978an Euskal Filologia ikasketak sortu zituen Deustuko Unibertsitatean, euskararen eta euskaldunen haztegi bihurtuko zen esperantzan. 1967tik aurrera zazpi probintzietako 23 baserrian ibiltzen da, gure arbasoen euskara jasotzen. Lan horren ondorioetako bat da "Atsotitzak. Refranes. Proverbs" liburua, 27.173 atsotitzen bilduma oparua. Baita "Erdarakadak" eta "Euskarazko tradizioa eta molde berriak" liburuak ere.

Hainbat ipuin eta polizia-eleberri idatzi ditu Gotzon Garatek eta horiei loturik sariak ere jaso ditu sarri (Txomin Agirre saria 1977, Azkue saria 1979...).

*Testua: Ainhoa Lendinez
Argazkiak: Ezkerrekoa Elea Argitaletxekoa
eta eskumakoa Gerediaga Elkartekoa.*

• Zer lan eta proiektu dituzu esku artean?

Orain nire lan nagusia esapideen hiztegi bat egitea da, euskara-erdara, erdara-euskara. Lan luzea izango da baina bikaina, nire ustez. Euskaraz nola esaten dute baserriarrek zazpi probintzietan "echar la casa por la ventana", "vete a freir espárragos"... eta holakoak. Milaka bildu ditut berrogei urtez baserrietan.

• Eleberriak eta ipuin bildumak ere idatzi dituzu.

Bai, eleberri batzuk ere badituz eskuen artean, baita ipuinak ere. Aste honetan atera dira nire bi liburu berri. Bata Lauaxetari buruz eta bestea baserrietan bildutako ipuin bilduma bat.

• Hizkuntzalari eta idazle, baina orenen gainetik euskaltzale. Osasuntsu al dago euskara une honetan?

Euskara kontuan badira alderdi pozgarriak eta kezagarriak ere. Euskaraz

ikasteko erraztasun handiak dira orain, gure gazte denboran aldean. Euskaraz dakien askok, ordea, erdaraz egiten du. Euskaldunak dira baina ez euskaltzale.

• Sarri esan duzu egoera politikoak baldintzatzen duela euskararen osasuna...

Problemarik latzena, baina, politikatik heldu da. Euskara ez dela beharrezkoa Euskal Herrian. Eta beharrezkoak ez diren hizkuntzak galdu egiten dira luzaroan. Espainiako Konstituzioak bidegabe izugarria, injustizia eraman ezina egiten digu hirugarren artikuluan, euskaldunok erdaraz ikastera behartuta. Zer egingo genuke espainol konstituzioak euskaldun guztiok katoliko izatera behartuko bagintu? Protesta gogorak, arrazoiez. Euskaldunok, ordea, sekula ez dugu protestarik egin euskara zapaltzen duen artikulu horren kontra. Gizagaixo handiak gara.

Durangoko Argizaiola saria

Gerediaga Elkartek 1992. urtean eman zuen lehen "Argizaiola saria". Zenbait personak eta hainbat erakundek euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lana goraiatzeko hasi zen ematen "Durangoko argizaiola omen-saria", "gavean argia" izan zirenei eskerrak emateko. Bizitzan zehar egindako lan oparoarengatik, Gerediaga Elkartek Gotzon Garateri emango dio "Durangoko Argizaiola 2005" omen-saria. Ekitaldia abenduaren 8an izango da Durangon, iluntzeko 20:30ean.

[PROTAGONISTA]



Josu Lariz

Uruguako Gobernuak baimena eman dio Josu Lariz errefuxiatu elgoibartarrari, berriro bertara itzultzeko. 16 urtez Uruguain bizi ondoren, 2002. urtean Argentinara kanporatu eta han preso hartu zuten. Estradizio epaiketaren ostean, iaz aske utzi zuten, baina ezin izan da Uruguaira itzuli. Orain, behin-behineko nortasun agiri bat eman diote Urugaira itzuli ahal izateko. Espainiako Gobernuak hiru aldiz eskatu du Josu Larizen estradizioa, behin Uruguairi eta bitan Argentinari, baina ez dizkiote onartu. Josu Lariz 1984. urtetik dago errefuxiatuta.

[NOTIZIA]

Ostegunetako azokaren arazoa konpontzeko bidean da

Duela 15 hilabete hasi zen ostegunetako azokaren arazoa konpontzeko bidean da. Joan zen astean bildu ziren azokako saltzaileak Udaleko agintariekin, eta badirudi, akordio batera iristeko pausuak eman direla. Saltzaileek behin-behineko salmenta postua Plaza Txikian jartzeko baimena eskatu zuten, eta gerora, Sigmak beharrezko baldintzak betetzen baditu, bertara joango direla adierazi zuten. Beraien esanetan, "denbora asko daramagu lanik egin gabe, eta guretzako beharrezkoa da ostegunetako azoka".

Udala pozik

Udaleko agintariak pozik hartu dute saltzaileek izan duten postura aldateta



hau: "dudarik gabe elgoibartarrentzat eta merkatarientzat onuragarria izango da", adierazi du Marivi Agirregomezkortak. Momentuz, saltzaileek egindako eskariei baiezkoa eman die Udalak, eta aurrerantzean egiten diren eskaera guztiak banan-banan aztertuko dituela adierazi du.

[ZENBAKIA]

90.977,40

Udalak 90.977,40 euroko aurrekontua duen proiektua atera du lehiaketara Arre-gitorreko Hautzaindegiko obrak egiteko.

Jaiotze tasa asko handitu da, eta eskari horri erantzuteko, beharrezkoa da. 4 hilabete izango dituzte lanak egiteko.

asteko [ARGAZKIA]



Gure herriko etxebizitzak aurpegia garbitzen ari dira azkenaldian. Garbitzen baino gehiago, itxura aldatzen ari direla esan daiteke. Itxura aldatze hori, gizakioi ez ezik, etxebizitzei ere gustatzen zaiela ematen du. Errosario kalean margotu zuten lehenengo etxebizitza. Arraroa egin zitzaigun ordu hartan, arraroa baina aldi berean polita zegoen. Handik aurrera, Plaza Handian, Madalan eta orain San Frantzisko kalean ere ikusi daitezke itxura aldatutako etxebizitzak. Kolore ukitu polita daukagu herriko kaleetan.

Udalak Alzolako bi etxebizitza aterako ditu enkantera



Elgoibarko Udalak bere jabegoan dituen bi etxebizitza aterako ditu enkantera. Bi etxebizitza hauek Alzolako Karmen enparantzan daude. 64,20m²ko etxebizitza dira, bakoitza, 10m²ko terrazarekin. Lehenengoari enkanterako jarri dioten prezioa 105.780 eurokoa da, eta bigarren etxebizitzarena 102.895 eurokoa da.

Udalak dagoeneko onartu ditu enkanterako pliegoak. Etxebizitza hauek erosteko interesa dutenek abenduaren 21erako aurkeztu beharko dituzte euren proposamen ekonomikoak Udaleko Erregistro Orokorrean. Interesatuek

udaletxean bertan jaso dezakete informazio gehiago, eta bertan eskuratu ditzakete enkanterako pliegoak.

Baldintzak

Enkante honetan parte hartzeko interesatuek baldintza batzuk bete behar ko dituzte. Lehenengo etxebizitza erosteko interesa dutenek 2.115,50 euroko bermea aurkeztu beharko dute txeke, abal, dirutan edo zor publiko moduan. Era berean, bigarren etxebizitzarako hautagaiek 2.057,90 euroko aurrerapena aurkeztu beharko dute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Bertsolari Txapelketa Finalerako sarrerak

Abenduaren 18an jokatu da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finala Barakaldon, eta nahi duenak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen erosi ahal izango ditu bertara joateko sarrerak 25 eurotan. Honekin batera, autobusa (12 euro) eta bazkarirako txartelak (18 euro) ere erosi daitezke. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 16 26 telefonora deitu daitezke.

Tertuliak egitasmoa

Elgoibarko Izarrak antolatutako tertuliak egitasmorako euskaldun zaharrak behar dira. Aurtengo ikasturtean 25 euskaldun berri hasi dira programa honetan parte hartzen, baina euskaldun zaharrak gutxi dira. Helburua euskaldun berriei euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzea da. Astean ordubetez, bi edo hiru euskaldun berrirekin euskaraz jardutea eskatzen da. Interesatuek 943 74 16 26 telefonora deitu dezakete.

Jesus Mari Makazaga Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Jesus Mari Makazaga izan da BARRENEko "Bai ala Ez" lehiaketako irabazlea. Gabi jabetxean bi lagunentzako afaria irabazi du. Datorren hilean RIP musika taldearen bost CD-DVD zozketatuko ditugu. Parte hartzeko bai ala ez erantzunak sms bidez 7505 telefonora bidali behar dira.



HIESaren prebentzio astea antolatu du Errotatxok



Atzo, abenduak 1, HIESaren Mundu Mailako Eguna ospatu zen, eta urtero bezala, egun honen bueltan Errotatxo Elkarteak HIESaren prebentzio astea antolatu du. Ekitaldi desberdinak izango dira egunotan gure herrian, eta Errotatxotik jendearen parte hartzea eskatzen dute. Atzo goizean mahai informatiboak jarri zituzten kalean zehar, eta iluntzean kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian. Bihar, goizeko 11:00etatik aurrera, "desberdintasuna suntsitu" lemapean haurrentzako ekintzak izango dira Plaza Handian, eta igandean, HIESaz hil direnei omenaldia egingo zaie 12:00etan Plazan.

Unescoren ustez, munduan hitz egiten diren sei mila hizkuntzetatik ia gehienak desagertu egingo dira mende honetan.

Euskara desagertzeko arriskuan ikusten al duzu?

PATRICIA CANSECO

Erizaina

21 urte



“Ez. Ume guztiek dakite euskaraz, eta lanerako ere gero eta gehiago eskatzen dute. Nik publikoari begira egiten dut lan eta jendeak eskertzen du euskaraz egitea”

JUANI ARAKISTAIN

Dependienta

41 urte



“Ez. Gazteek lehen baino gehiago egiten dute orain euskaraz, beste batzuk jakin arren ez dute erabiltzen, baina etorkizun ona ikusten diot euskarari.”

MARI MONTEERRUBIO

Tailerreko langilea

32 urte



“Ez, ikastetxeetan gure garaian baino gehiago saiatzen dira orain euskararekin. Gainera, ikasteko ere lehen baino aukera gehiago diot euskarari.”

LEIRE PEREZ

Ikaslea

20 urte



“Ez, aurrera egin behar du euskarak. Nire inguruan jende askok egiten du euskaraz, eta gazteek erabiltzen badute, etorkizuna ziurtatuta dago.”

[BAI ala EZ?]

Ikusten al diozu irtenbiderik mundu mailako goseari?

BAI %30

“Gutako bakoitza astebeterako Afrikara joan beharko litzateke. Horrela konturatuko ginan arazoaren benetako dimentsioaz. Bestela munduan dauden arazo morloetako bat gehiago da.”

EZ %70

“Mundu aurreratua” den honetan gure bizi maila gero eta gorago egoten ahalegintzen gara. Jendea ez dago prest komodidadeak utzi eta beharra dutenen alde pauso serioak emateko.”

Datorren asterako.... **Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna**

Euskaldunok ba al daukagu Euskararen Eguna ospatzeko motiborik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilabete honetan **RIP musika taldearen 5 CD-DVD** zozketatuko ditugu. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

TXANKAKUA

3.600 €

IRABAZI DITZAZKEZU!!!!

Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak 10 erosketa-txeke oparituko ditu.

500€-ko 2 sari eta 100€-ko 8 sari

1.800 €

Epea: abenduak 2tik urtarrilak 9ra.

Txankakuaren visa-txartelarekin ordaintzen dutenen artean 10 euroko 180 sari zozketatuko ditugu.

1.800 €

Epea: abenduak 15etik urtarrilak 15era.



Erosketak oso prezio onean egingo dituzu!

Babesleak:



Eusko Jaurlaritza
Industria, Merkataritza eta Turismo saila



CAJA RURAL
DE NAVARRA



San Bartolome, 18
Tel.: 943 74 08 49

Hortensia Marina Riveiro
Fundador 1977

majestic

Roset



MAFECCO



CASA ASTIGARRAGA



GYS SPORT

Gabonetako
oparirik onenak
guk ditugu!



KIROLAK
Errosario, 16-18
Tel.: 943 74 32 68

OUT LESS
Jausoro Plaza
Tel.: 943 74 43 86



G & M

Jantzidenda

San Bartolome, 23
Tel.: 943 74 46 17



GARATE

Jantzi - Denda

San Bartolome, 13
Tel.: 943 74 11 29
ELGOIBAR

Erribera, 3
Tel.: 943 86 09 96
ZUMAIA



Ferpi

ARROPA KONPONKETA

Espezialistak gara
era guztietako
konponketak egiten!

- Puntuzko ehunak
- Laruzko ehunak
- Naruzko ehunak

San Bartolome, 3 • Tel.: 943 74 38 85

JULENE

San Frantzisko, 43

Tel.: 943 74 42 53

karkizano

San Frantzisko, 14

Tel.: 943 74 05 49

IRIONDO KIROLAK

Negurako prest!

San Frantzisko, 37

Tel.: 943 74 09 56

Mendi eta kalerako moda

Sara

Errosario 14
Tel.: 943 74 35 55

Berokiak **54,95 €**
Poltsa marroia **50 €**
Poltsa beisa **41 €**
Jertseak **44,95 €**



SKANDALO

San Bartolome, 9
Tel.: 943 74 35 95



baztara

zure haurtxoaren denda
San Bartolome, 22 • Tel.: 943 74 00 91

Gure lokal berrian gaude, zatoz!



BABYBOON baby comfort absorba JANE Inglesina RÖMER Quinny TRAMA BEBECAR bebédúE

Zapatadenda

San Bartolome, 17 Tel.: 943 53 13 50

Nigortze

OPARIDENDA

San Bartolome, 7 San Roke, 7
 Tel: 943 74 43 41 Tel: 943 74 34 01

Luvik

Gabon zoriontzuzak!

oinetakoak

STONEFLY
24 HRS
AEROSOLES
Woolmark
ANGEL INFANTES
Callaghan
Dansi
1-3 BRAKO

San Bartolome, 28 - Tel.: 943 74 43 45

MOMENTUAN inprimatu zure argazki digit@lak

Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

ARTXIBO DIGITALETIK ARGAZKIRA

Sateleko telefonoak
Kamara digital,
SD memoria, XD, CF etab...tik
CDetarik

+ FOTOC D
Deskargatu zure
argazkiak CD batera

Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

PRODUKTU BEREZIAK

Koloretik, zuri beltzera, sepia...
Argazkiak testaezin, zuriak agarrak...
Mangera zutun eta koloretan

Karnet bereziak
Combiprint
Indoa kopiak

Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

SKANER ZERBITZUA

Negatiboak CDra
Diapositibatik CDra
Argazkitik CDra

FOTOC D

...Paper fotografikoan *bizitza guztirako*

ostarku
Santa Ana, 5 • Tel.: 943 74 06 46

EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"



San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88

a zku e

ARGAZKIAK



Inmobiliaria Studio Siglo XXI

Proiektuak eta erreformak
Sukalde eta bainurako altzariak
Pisu eta lonjen salmenta eta alokairua

San Bartolome, 16 behea
ELGOIBAR

Tel. 943 742 306

Juan Guisasola, 8 behea
EIBAR

Tel. 943 204 264



Ikus Optika

**Betaurreko
osoak**

Umea
Gizonezkoa
Emakumezkoa

65€

Jose Artetxe, 10
Tel.: 943 15 75 74
AZPEITIA

San Bartolome, 10
Tel.: 943 74 37 34
ELGOIBAR

LOEWE

D&G DOLCE & GABBANA

ARMANI

LANCÔME

LACOSTE

cacharel



GOIARA

Lurrindenda

San Bartolome, 23 • Tel.: 943 74 11 33



CK Calvin Klein

GIVENCHY

Carolina Herrera

HUGO BOSS

ADOLFO DOMINGUEZ

KENZO

Gabon eta urte bukaerarako eskaintza berezia!

LANZAROTE

Irteerak: Abenduak 18, 22, 24, 25 eta 31an.

317€-tik hasita.



**Errege magoen eskaintza berezia!
Disneyland Resort Paris; 4 x 3 gau**

Viajes Bilbao Express
Bilbao Express Bidaiak



TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24

E-MAILA: e1@viajesbilbaoexpress.com

www.viajesbilbaoexpress.com

FORUEN ENPARANTZA, 3 • 20870 ELGOIBAR

Amigodo ALTZARIAK

GURE ERAKUSKETA USTUZERA GOAZ!

Santa Ana 4 eta 6 • Tel.: 943 74 12 34

Prestatu ezazu
zure etxea!



MULTIOPTICAS
UZURI

GABONETAKO OPARIAK:

Audifonoak
Eguzkitako betaurrekoak
Pauso kontagailuak
Teleskopioak
Mikroskopioak



Prismatikoak
Barometroak
Lupak

...

San Frantzisko, 21 ELGOIBAR • Tel.: 943 74 03 59

Ostolaza, 7 DEBA • Tel.: 943 19 21 92

LA BODEGA ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK
Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak

EGUNEKO MENUAK
ematen ditugu



Pedro Muguruza, 22 · Tel. 943 742 500



Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

PLATER KONBINATUetan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06



Kala

loradenda



San Frantzisko, 24

Tel.: 943 74 45 16



Softlan
analisa & programazioa

Zure etxerako edo lanerako ekipoa, portatila,
zerbitzariak, periferikoak, kontsumigarriak eta zerbitzuak.



(Munduko lehen fabrikatzailea)



Antonio Arrillaga, 1

www.softlan.biz

Tel.: 943 74 81 05



Z A Z P I
I N F O R M A T I K A



PDA



Ordenagailua



Portatila



PSP



Kamara digitala

Pedro Muguruza, 8 behea

Tel./Faxa: 943 74 37 87

LEIGAR



ACTIVA

Salmenta eta zerbitzu teknikoa



Era guztietako elektragailuak.

Errosario, 8 - Tel. 943 74 00 54

TVC-LCD- PLASMA • MP3- HOME CINEMA • DVD GRABAGAILUA- DVD



San Bartolome, 35 • Tel.: 943 74 03 45



IDARRAGA
KAFEAK



Olaso, 15 (55-E lokala) • Tel.: 943 74 05 33

ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa ▪ Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa ▪ Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19

JAIOTAKOAK



Danel Lizarralde Justo

[Azaroak 3]
Urko eta Nuria



Danel Carril Mancebo

[Azaroak 3]
Angel eta Maria



Danel Iriondo Osoro

[Azaroak 21]
Joseba eta Idoia

Araitz Guinea Iturricastillo

[Azaroak 3]
Mikel eta Naiara

Nahia Zubiaurre Agirrezabal

[Azaroak 17]
Iñaki eta Arrate

Irati Gonzalez Salgado

[Azaroak 20]
Julian eta Angeles

HILDAKOAK

Blas Gomez Plaza • [84 urte] • Azaroak 10
Florentina Azpiri • [81 urte] • Azaroak 13
Jose Zabala • [82 urte] • Azaroak 19
Blas Mugerza • [41 urte] • Azaroak 20
Virginia Barquina • [56 urte] • Azaroak 20
Angeles Leanizbarrutia • [88 urte] • Azaroak 23
Felipe Muñumer • [60 urte] • Azaroak 28

EZKONTZAK

*Azaroan ez da ezkontzarik izan Elgoibarren

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

ERNESTO EZPELETA "BIHURRI"

AIZKOLARIA

«Herri kirola ez dago estimatuta edo beharko lukeen moduan baloratuta»


Munduko errekor baten jabe da Ernesto Ezpeleta "Bihurri" (39 urte), Eibarren jaio eta Mendaron bizi den aizkolaria. Abadiñoako ferian lortu zuen. Guztira 3 ordu 7 minutu eta 48 segundu behar izan zituen 5,00 metro perimetroko pago egurtzarra mozteko, 4.797 aizkorakada emanaz. Ez da ezagutzen honelako beste markarik, eta esan daiteke munduko errekorra izan zela. Berba egiten duen bezain franko eta garbi mozten badu enborra laster emango dio honek kolpea haizeari ere. Herri kirol erakustaldia eskainiko du abenduaren 10ean, Kontsezio Azokan.

• Ohikoa bihurtu zara Kontsezio Azokan. Zer eskainiko diguzu aurtengoan?

Hirugarren urtez jarraian ariko naiz Kontsezio Azokan. Udalean jende berria, gaztea, sartu zenean Mendaroko ferari bultzada bat eman nahi izan zioten; entzute gutxi zuela, herri mailan geratzen zela... bilera batzuk egin eta zerbait berezia prestatzekotan geratu nintzen. Azkenean 3,5 metro perimetroko egurra topatu eta huraxe moztu genuen. Jende dexente etorri zen eta hurrengo urtean 4 metrokoarekin errepikatu genuen. Aurten ez naiz enbor handiekin arituko, Gipuzkoa eta Nafarroako sei neska-mutilen arteko herri kirol norgehiagoka prestatu dugu. Horretaz gain, Goenatxo II.ren 13 urteko semea, hau ere harrijasotzailea, aurreneko aldiz aterako da hemen.

• Perimetro handiko enborretan espezialdutako aizkolaria gisa eza-gutu zaitugu azken aldian. Mugara iritsi al zara?

Aurtengo partekoak behintzat egin ditugu. Aurrerantzean ikusi egin behar, sasoi piska bat badaukagu oraindik,



baina ezin dut gehiagorik aurreratu. Behin 5 metro perimetroko enborra ebakita, ebakitzea besteko lana da enbortzar hauek bilatu eta topatzea. Orain arteko saioak bi enborretatik ateratako egurrarekin egin ditut. Aurrenekoa Frantziatik ekarri genuen eta bigarrena Nafarroatik. Beti pagoa, Euskal Herriko egurra pagoa baita.

• Zer berezitasun dauka enbor handiekin aizkoran egiteak?

Enborra ebakitzeak, berez, nahiko meritu du, mozteko behar izan dugun denbora kontutan hartu gabe. Honi, enbor handienak kalitaterik eskaseneoak direla gaineratu behar zaio. Enborrek perimetro handiena ipurdian izaten dute, zainak eta egurrik gogor eta zaharrena dagoen tokian, alegia. Zaila da tamaina bereko eta kalitatean parekoak diren bi enbor handi topatzea. Dagoena hartu eta...kitto!

• Aizkora bereziak al darabiltzazue?

Teknikari dagokionez, korteek zehatzak behar dute izan, batera lan erraza ia bi metroko kirtendun aizkorekin. Perimetro handiko enborrena kapritxo nahiko korapilotsua da; egurra bilatu, kirtanak neurria egin... endredo asko

eta nekosoa izaten da. Egurrak ez dira batere xamurrak eta dozena erdi bat aizkora apurtzen ditudala gehitu (bakoitzak 300 eurotik gora). Honez gain, Hiru orduetan liburu bat idazteko adina gauza pasatzen dira burutik; gorputzak beste sofitzen du buruak. Barruak husterazozazela mentalizatuta joan behar da.

• **Herri kirol erakustaldiak eskaintzen dituzu Euskal Herritik kanpo...**

Halaxe da. Andaluzia, Kanariak, Asturiasen joan zen asteburuan... Frantzia eta Espainian nonnahi. Ikusleak halako esfortzua nola egin leiken harmituta geratzen dira. Kirolariak, eta ez edonolakoak, garela ikusten dute. Jende asko aipatu izan dit, urrunetik folklore tankera hartzen zietela herri kirolei, baina ezta urrik ere. Aizkoran, frontzan, harrijasotzen, iparraldeko jokoak, txingak... herri kirolek duten aniztasuna eta ikuskizuna eskaintzen diegu. Alabaina, leku guztietan lez, lehia ikustea maite dute. Ikusleei probatzeko aukera ematen diegu. Ikusi izan ditut, rambo estiloko gimnasioko kulturista artifizial horietako batzuk, harria gerri parera atera ezinik.

«Mindegia bat ateratzeko panoramarik ez dut ikusten aizkoran»

• **Elgoibarren egin al duzu erakusketarik?**

Ezibizioak herri guztietan egin ditut Elgoibarren ezik; ez auzo baten ez kalean, sekula ere ez. Hori dok marka! Gainera, sasoi batean Elgoibarren denbora askoan entrenatzen ibili nintzen Mintxetan Argiñe Gabilondokin.

• **Bihurri "galaktikoa". Real Madrid-en estadiumea, aritu den lehen aizkolari eta bakarra izan zara.**

Eibarrek Kopako partida jokatu zuen Real Madrilen aurka eta Santiago Bernabeu estadioaren lehen atearan



kanpokaldean egin nuen ezibizioa 3,5 metroko enborrarekin. Ikuskizun polita eskaini genuen. Ultra Sur-ekoak ere txundituta laga genituen. Uste ez bezalako ohiartzuna izan zuen.

«Ultra Sur-ekoak ere txundituta laga genituen Bemabeun»

• **Zer iruditu zitzaizun Munduko Aizkolari Txapelketa?**

Txapelketa baino ezibizio bat iruditu zitzaidan. Munduko Txapelketa 15 egun lehenago Durangon jokatu zen. Aizkoraketa diferenteak dira; ezin da maratoilari bat 100 metroko antxintxikari baten kontra jarri.

• **Herri Kirola osasuntsu al dago?**

Herri Kirola ez dago estimatuta edo beharko lukeen moduan baloratuta. Euskal Herriko kirola herri kirola da, alabaina, beste kirol asko jasotzen duten laguntzarik ez du. Nik behintzat ez daukat gauza handirik inori eskertzeko.

• **Ba al dator gazterik atzetik?**

Txapelketetan 40 bat aizkolari inguru gara eta aurrean ibiltzen direnak zaharrena dira. Mindegia bat ateratzeko panoramarik ez dut ikusten egungo aizkoran.

• **Txapelketetan aritzen al zara?**

Bai. Bigarren mailan ari naiz Euskal Herriko Txapelketan eta Bizkaikoan txapeldunorde atera dut aurten. Halarik ere, ez naiz txapelketako gizona. Ez dut daukadan guztia ematen, ezta urrik ere. Etxean egindakoak txapelketan egiterarekin konformatuko nintzateke, baina... orain artean ez da horrela izan.

• **Gustatuko al litzazuke zure semeek aizkoran aritzea?**

Gustatzen zaiela erabakiz gero lagun-duko nieke. Halere, askoz kirol erosoagoak daude. Berriz jaioko banintz, bi aldiz pentsatuko nuke hontan hasi baino lehen; endredu eta lan asko bizi izan ditugu.

Gazteria Sailak logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du

Elgoibarko Udaleko Gazteria Sail sortu berriak saila identifikatuko duen Logotipo Lehiaketa antolatu du. Lan orijinalak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatuko da, arratsaldeko 14:00ak baino lehen. Lan horiek honako helbide honetara bidali beharko dira: Gazteria Zerbitzua (LOGOTIPO LEHIAKETA), Foruen plaza z/g, 20870 Elgoibar. Irabazleak 300 euro josoko ditu. Izena abenduaren 20an emango da jakitera. Informazioa: Gazteria Sails (943 74 10 50; gazteria@elgoibar.net) edo Gazte Informazio Gunea (943741461; elg.gzerbitzua@terra.es).

Soldadura ikastaroa

Elgoibarko BH Institutuak "Soldadura eta siderurgia ekipamenduen muntaia" ikastaroa antolatu du. Institutuan emango da, eta ikasleen formakuntzaz gain, Azpeitiko enpresa batetarako langileak aurkitzea da helburua. 3 hilabete ferdi iraungo ditu, eta praktikak egingo dituzten enpresan, %60a kontratatuko du, gutxienez, kualifikazioa lortzen dutenak, alegia. Interesatuak Institutura deitu, 943 74 80 19 telefonora (Susana edo Jone), abendaren 7a baino lehen.

Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa eta SMS bidezko maitasun mezuen edizio berriak abian dira. Lanak (orijinala eta 3 kopia) eta egilearen datuak dituen kartazala, handiagoko batean sartuta, helbide honetara bidali: Amodiozko Gutunen XIV. Berrigara Lehiaketa. Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g 20570 Bergara. SMS bidezko mezuzak 605712469 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com posta elektronikora bidali beharko dira. Oinarriak eta informazio gehiago honako web orrialdean: www.jardun.net lanak jasotzeko azken eguna 2005.eko urtarrilaren 5a izango da. Sari emateak otsailaren 14an, San Balentin Egunean egingo da.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA, ABENDUAK 3

Zinea eta antzerkia euskaraz gozatzeko aukera asteburuan

Urtean zehar, hainbat ekitaldi eta jarduerak antolatzen dira euskararen omenez. Horietako bat, garrantzitsuenetarikoa, beharbada, Euskararen Nazioarteko Eguna da, urtero-urtero, abenduaren 3an ospatzen dena.

Elgoibarko Udalak, bada, egun horretako ospakizunarekin bat egin nahirik, hainbat ekitaldi antolatu ditu abenduaren 2tik 4ra bitarteko astebururako. Horiek horrela, elgoibartarrek euskarazko film eta antzezlan batez gozatzeko aukera izango dute. Bi ikuskizun horiek Herriko Antzokian ikusi ahal izango dira. Lehendabizikoa, Aupa Etxebeste! filma izango da (abenduaren 2tik 4ra arteko asteburuan). Honakoa joan den 13 urteotan euskaraz egin den luzemetraia bakarra da. Filma hori euskaraz izan arren, gaztelaniazko azpituarekin ikusi beharko da. Adin guztietako ikusleei zuzenduta dago.

Euskaraz ikusi ahal izango den bigarren ikuskizuna, aldiz, "Ingurumenua" izeneko antzezlan izango da. "Kolax"



antzeztaldeak eskainiko du, datorren domekan, abenduaren 4an, arratsaldeko 16:30ean. Ekitaldi honetarako sarrera doan izango da, Kutxak sustatu eta finantzaturako jarduerak baita. Bideanabar, esan dezagun, jarduerak hau 4 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa dela.



Abenduaren 20an inauguratuko da Parrokiako Jaiotza

Elgoijaiotzak urtero-urtero antolatzen duen jaiotza mekaniko erraldoia, iaz 25. urteurrena ospatu zuten, abenduaren 20an inauguratuko da, Parrokiako kaperan. Urtarrilaren erdi aldera arte egongo da bertan ikusgai. Parrokiako katekistek antolatzen duten Jaiotzen Lehiaketa, berriz, datorren abenduaren 18an, domekan, egingo da. Parte hartzen duten Jaiotzekin erakusketa antolatuko dute Parrokiako arkupeetan, goizeko 11:00etatik aurrera. Sari banaketa eguerdiko 13:00etan izango da Parrokian.

ELGOIBARKO XV. NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

Xakelaririk onenen arteko lehia abenduaren 9tik 16ra Kultur Etxean

Xakea eta abendua; azken 15 urteetan bata bestearengandik banaezinak izan dira Nazioarteko Xake Txapelketari esker. Euskadiko Xake Federakuntzak, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Zubi-Ondo Xake taldeak antolatuta abenduaren 9tik 16ra jokatu da, Kultur Etxean, Elgoibarko XV. Nazioarteko Xake Txapelketa Magistrala. Aurtengo txapelketak 10 kategoria izango ditu eta nazioarteko xakelari onenek parte hartuko dute bertan. Elgoibarko txapelketaren aspaldiko ezagunak dira asko; behin baino gehiagotan etorri diren xakelariak, eta batzuek, Oleg Korneev erusiarra kasu, behin baino gehiagotan irabazle. Azer Mirzoev (Azerbaijan), Cristian Bauer (Frantzia), Sebastian Maze (Frantzia), Dragan Paunovic (Serbia), Mario Gomez (Euskadi), Iñigo Argandoña (Euskadi), Santiago Gonzalez



(Euskadi), Enrique Rodriguez (Espainia) eta Ernesto Fernandez (Espainia) dira gainontzeko 9 partaideak. Partidak 16:00etatik aurrera jokatu dira eta sari banaketa abenduaren 16an, 20:00etan, izango da.

Kirola Euskarazeko fitxa didaktiko berriak kalean

Debaroko Udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek Kirola Euskaraz programaren aurtengo fitxa didaktikoak aurkeztu dituzte. "Uretako Gimnasia" eta "Hirugarren Adineko Gimnasia" izenburuko lanak aurkezteaz gain, 2006 urterako beka deialdiaren berri eman dute Kirola Euskaraz egitasmoaren bultzatzaileek. Bekaren XVI. edizioaren helburua bi arlotako fitxa didaktikoak sortzea da: alde batetik, Boleibolari buruzkoak, eta bestetik, Pilates metodoari buruzkoak. Beka bakoitzak 3.000 euroko ordainsaria izango du, eta beketarako eskaerak aurkezteko azken eguna 2006ko urtarrilaren 15a izango da. Bestalde, "Kirola Euskaraz" egitasmoak 10 urte baino gehiago daromatza abian, eta horregatik, urte horietan guztietan argitaratutako fitxa didaktikoak ikusgai jari dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren web gunean, ondorengo helbidean: www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz

Mintxetako antxintxikariak laudioko krosean

Mintxeta Atletismo Taldeko 21 antxintxikariak parte hartu zuten XXII. Nazioarteko laudioko krosean. Estatu guzitiik joandako korrikalariak bildu ziren eta elgoibartarrek postu aipagarriak eskuratu zituzten. Horrela, Lorea Santiagok 2. postua egin zuen benjamin mailan; Nora Santiago eta Ibon Belaustegi 7. eta 5. postuetan, hurrenez hurren, alebin mailan eta Angel Mari Lopezek 8. postua egin zuen kadeteetan.

Kiroldegia eta Mintxeta itxita Konstituzio zubian

Olaizaga kiroldegia eta Mintxeta itxita egongo dira abenduaren 6an eta 8an. Hala ere, astean zehar, bai astelehenean eta baita asteazkenean ere aerobik, spinning, jubilatuen gimnasia, aquaerobik eta pilates ikastaroak betiko ordutegietan emango dira. Ostirala izango da ikastaroak emango ez diren egun bakarra.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Gernika 2 - Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 2 - San Marcial 2 (Jub.)
Elgoibar 2 - Eibartarrak 1 (Kad.)
Elgoibar 0 - Antiguoko 4 (Inf. A)
S. Herrera 2 - Elgoibar 2 (Inf. B)
Bergara 2 - Elgoibar 0 (Neskak)
Ordizia 2 - Elgoibar 5 (Neskak F-8)
Elgoibar 4 - Aretxabaleta 0 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

GSI Bilbao 7 - Kenci Elg. 4 (Nazional B)
Amutiz 1 - Lanbroa 4 (1. maila)
Toletxe Kafetegia 1 - MCM A 7 (1. maila)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle 21 - Askariza 21 (Sen. mut. 2. Naz.)
Oñati 31 - ANTT Softlan 14 (Sen. mut.)
Lojantzi 24 - Urdaibai 19 (Sen. nesk.)
Zarautz 25 - Cometel 13 (Jub. nesk.)
Pagoaga 19 - Urmieta 14 (Kad. nesk.)
Urola 18 - Pneumax 16 (Jub. mut.)
Umobitza 46 - Donibane 21 (Kad. mut.)
Tecnomeca 11 - Urola 27 (Kad. mut.)
Sanlo A 33 - Bergara 2 (Inf. nesk.)
Aozaraza 16 - Sanlo B 14 (Inf. nesk.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Aurrera Saiatz 22 - Eibar 6 (Liz./Arriz) (2. jub.)
Murumendi 12 - Lagunak (Atxa./Portu) 22 (1. jub.)
Bergara 22 - Lagunak (Arrib./Salegi) 22 (2. kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapatua, 3
16:30 Elgoibar - Pedrusko (1. erreg.)
18:30 Elgoibar - Gasteiz (Neskak)

ESKU PILOTA

Ikastolan
Barinakua, 2
21:15 Lagunak - Gazteleku (2. maila kad.)
22:00 Lagunak - Bergara (2. maila jub.)
22:45 Lagunak - Añorga (1. maila jub.)

ESKUBALOIA

Kiroldegian
Domekia, 4
11:00 ANTT-Softlan - Urola (Sen. mut.)

ARETO FUTBOLA

Kiroldegian
Zapatua, 3
16:00 Kenci - Zierbana (Nazional B)
Domekia, 20
12:30 Lanbroa - Orioko Tabernak (1. maila)

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

↑ Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak, ostalaritza... ☎ **626914904 (Rosa)**

↑ Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **606 296 153**

↑ Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanetarako prest. ☎ **675 467 874**

↑ Mutila eraikitza lanetarako prest. ☎ **662 09 46 24**

↑ Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientziaduna. ☎ **647 144 950**

↑ Magisteritzako ikaslea gabez umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **943742050/679237611**

(goizez edo 20:00etatik aurrera)

↑ Gizona peoi edo soldadore lanetarako prest. ☎ **686 10 85 52**

↑ Emakumea asteburuetan nagusiak zaintzeko prest. Gabez ere. ☎ **686 10 85 52**

↑ Tailerretako muntaia txikiak egingo nituzke etxetik. ☎ **637 46 70 42**

↑ Neska gaztea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo ume eta nagusiak zaintzeko. ☎ **660 75 74 59**

↑ Txistularia eta dantzaria den neska ospakizunetarako prest. ☎ **615 799 689**

↑ Mutila lanerako prest: pintura, nagusiak zaindu, garbiketa... ☎ **618 823 025**

↑ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**

ESKAITZA

↑ Ateburuetarako ileapaintzailea behar da. ☎ **943 74 44 89/685 72 86 09**

↑ Pertsonak behar dira barran lan egiteko eta sukaldarako, asteburu eta jaiegunetan. ☎ **628 90 48 91**

↑ Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 12 12 62**

[PARTIKULARRAK]

↑ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. ☎ **606 73 38 50 (Carlos)**

↑ Lehen Hezkuntza eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. ☎ **943 53 10 54**

[GARAJEAK]

↑ Garajea alokatzen da Karakolean. ☎ **943 74 17 14**

[LOKALAK]

↑ Lokal bat hartuko genuke alokairuan. ☎ **943 53 14 69 (Alex)**

[SALEROSKETAK]

↑ Snow-board egiteko botak (Rossignol markakoak, gris eta horiak), 37,5.

Elurretarako betaurreko txuriak eta txamarra (Columbia markakoak, gris eta beltza) salgai. Dena berria. ☎ **697 961 276**

↑ Opel Astra autoa salgai. GSi 2000, 8v. 115 zaldi. 142.000 km. 17ko llantak, kirol esekidura, alarma. Egoera onean. 3.900 euro. ☎ **647 727 324**

↑ Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. Silla, Grupo 0, zakuak, bubuilak... ☎ **636 129 543**

↑ Ordenagailu konpletoa salgai. 1024 RAM, 17 pulgadako TFT pantaila, 3 GHz... Prezio onean. ☎ **610 729 761**

↑ Citroen Xsara Coupe 1.6vtr autoa salgai. Gasolina. 90cv. 5 urte. ☎ **619 03 48 82**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

↑ Pisu salgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, komuna, sukalde, egongela, trasteroa. ☎ **677 43 71 12**

↑ Pisu salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukalde-jangela, terraza eguzkitsua, komuna, trasteroa, ganbarra. Igogailua. ☎ **943 74 00 95**

↑ Pisu salgai Donostian (Antigua). 74m². Eguzkitsua, dena kanpora, bistak. Bi balkoi, bi gela, egongela, sukalde-jangela, komuna. Gas naturala, berritua. 360.600 euro. ☎ **645 006 363 (20:30-22:00)**

ALOKAIRUA

↑ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626914904 (Rosa)**

↑ Etxea alokatzen da erdialdean. ☎ **943 744657/686694492**

↑ Pisu hartuko nuke alokairuan beste pertsona batekin. ☎ **943 74 85 97**

↑ Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**

↑ Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ **649 368 137**

[BESTERIK]

↑ Truk kafetegia alokatzen da. ☎ **943 74 00 09**

↑ Motorrean ibilizeko buruko kaskoa galdu nuen. Irekia eta gris kolorekoa. ☎ **652718719/943031943**

↑ Urtebeteko umearen eskularruak galdu ditut. ☎ **943 74 12 28**

maitane ESTETIKA ZENTROA



- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Nutrizionista zerbitzua
- Solairuma
- Masajeak
- Dekolorazioa

- Depilazioa
- Laser depilazioa
- Makillajea
- Mikropigmentazioa
- Betileen eta bekainen tindatzea eta permanentea



Hondartza, 7 behea • DEBA

Tel.: 699 347 040 / 943 19 12 11

LERYN JATETXEA

(NETTO ondoan)

ABENDUAK 17rako JOSTUNEN MENUA



"BOY" AGERRALDIA

1. Platerra
Etxeko entsalada
Era askotako frijituak
Txanpi beteak plantxan

2. Platerra
Txuleta
Redondoa saltsan
Bakailaua pil-pilean

Postrea (aukera zabala)

Prezioa: 25 €

Lerun Industrialdea, 6 - Tel.: 943 74 31 96

[ZORIONAK]



↑ Zorionak **Ion**, gaur 6 urte egin dituzulako. Etxeko eta anaia Rokeren partez.



↑ Zorionak **Nahial** hilaren 6an 5 urte! Noiz etorriko zera erregaluak jaso eta langostinoak jatera? amama, aitxixa, Maite eta tio.



↑ Zorionak **Julian Ayerdiri** hilaren 5ean urteak egingo dituelako. Emazte, etxeko eta bereziki, biloba Garaziren partez.



↑ Zorionak **Ekain** azaroaren 30ean 2 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.




↑ Zorionak **Itigo Armendia** bihar 7 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, arreba Noraren partez.



↑ Zorionak **Uxue** hilaren 9an lehenengo urtetxo egingo duzu-eta! Muxu haundi-haundi bat etxeko partez.



↑ Zorionak **Iker** abenduaren 9an 5 urte egingo dituzulako. Familiako partez muxu handi bat.



↑ Zorionak **Urtzi** azaroaren 29an 11 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Andoniren partez.



↑ Zorionak **Iker** bihar 6 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, zure anaien partez.



↑ Ondo pasa **Mikel** zure lehenengo urtebetetze egunean. Zorionak Ikastolako laguntxo partez.



↑ Zorionak **Aiora** zure 6. urtebetetzean. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



↑ Zorionak **Nerea** abenduaren 10ean 4 urte beteiko dituzulako. Etxeko guztien partez.



↑ Zorionak **Ibon** abenduaren 6an 7 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Naiara eta Naroaren partez.



↑ Zorionak **Julen** igandean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



BEKAK

MERKATARITZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO 4 BEKA 2006. URTERAKO

Industria, Turismo eta Merkataritzako Ministerioak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzeko 4 beka antolatzen ditu. Baldintzak: Unibertsitateko edozein karrerako goi-mailako tituludunak. Iraupena: 10 hilabete, 2006ko otsailaren 1etik abenduaren 31 arte. Dirulaguntza: 9.760,00 euro gordin beka bakoitzeko: 976,00 euro hilean. Epea: abenduak 23. Informazioa: 913493500 / 91 5837560

LEHIAKETAK

HERNANIKO INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Hernaniko Udalak 2006ko inauterietako kartel lehiaketa antolatuko du. Saria: 300 euro. Baldintzak: Kartelean "Hernaniko Inauterietak 2006" testua agertzea. Epea: urtarrilak 13. Informazioa: 943 552962

LANA

2 OKUPAZIO TERAPEUTA OSASUNBIDERA
Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Osasun Zerbitzua - Osasunbideak Osasunbidean Okupazio Terapeutari dagozkion 5 lanpostu (Txanda askeko 2 lanpostu eta Barne-sustapenerako 3 lanpostu) oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia bideratuko du. Baldintzak: Okupazio Terapiako diplomatu-titulua edo baliokidea edukitzea. Epea: abenduak 19. Informazioa: 948 428800

INGENIARI TEKNIKOEN LAN POLTSA

Nafarroako Gobernuak topografiako ingeniari teknikoaren lan poltsa zabaldu du.

Baldintzak: Topografiako Ingeniaritza Teknikoko titulua edo baliokidea. Epea: abenduak 12. Informazioa: 848 427000

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN ERRENTA KANPAINETAN LAGUNTZEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIEN LAN POLTSA

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldi baterako zerbitzuak emateko, errenta-kanpainen laguntzeko, Erdi mailako Teknikarien lan-poltsa sortzeko probak antolatuko ditu. Baldintzak: Ingeniari Teknikoa, Unibertsitateko Diplomata, Hirugarren mailako Lanbide Heziketa (LH 3) edo baliokidea. Epea: abenduak 7. Informazioa: 943 483344

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera
16:00-19:00



[OKINDEGIA]

4 igandea IBARRENA
6 martizena BOLINTXO
8 eguna DOÑA MERCEDES
11 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

2	Bidasolo
3	Etxeberria (Santa Ana)
4	Etxeberria (Santa Ana)
5	Fernandez
6	Etxeberria (Erosario)
7	Zabaleta
8	Ibañez
9	Ibañez
10	Bidasolo
11	Bidasolo
12	Etxeberria (Santa Ana)
13	Fernandez
14	Yudego
15	Zabaleta
16	Zabaleta
17	Ibañez (* Goizez Yudego)
18	Ibañez
19	Bidasolo
20	Etxeberria (Santa Ana)
21	Fernandez
22	Yudego
23	Etxeberria (Erosario)

KANPOKO FARMAZIAK IBAÑEZ

Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Heriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia
Eibar/Emua zonaldean.



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Hazierna	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 22 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaltexea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Konsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
• Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

[2 BARIXAKUA]

17:00 JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA

Kultur Etxeko sotoan
20:00ak arte
Antolatzaileak: AtxutxiamaiKa AT
eta Elgoibarko Izarra K.E.

[3 ZAPATUA]

11:00 JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA

Kultur Etxeko sotoan
14:00ak arte
Antolatzaileak: AtxutxiamaiKa AT
eta Elgoibarko Izarra K.E.

11:00 HAURRENTZAKO EKINTZAK

HIESaren Prebentzio Astea
Lema: Desberdintasuna suntsitu
Globoak puztea eta umeei
banatzea
Plaza Handian
Antolatzaileak: Errotatxo Elkartea,
AtxutxiamaiKaren laguntza

[4 DOMEKIA]

12:00 HIESAREKIN HILDAKOEI OMENALDIA

HIESaren Prebentzio Astea
Dantzariak, txalaparta, mahai
informatiboak, hitzaldia eta
kontzentrazioa
Plaza Handian
16:30 ANTZERKIA
Antzezlanak: "Ingurumenua"
Taldea: Kolax antzerki taldea
Heriko Antzokian
Antolatzaileak: Kutxa
Dohainik
18:00 KONTZERTUA
Taldea: Lau Gau
Mendaroko Azpilgoeta Elizan

[9 BARIXAKUA]

12:30 XV. NAXIOARTEKO XAKE TXAPELKETAREN AURKEZPENA

Kultur Etxean
Partidak 16:00etatik aurrera
Antolatzaileak: Udal Kirol
Patronatua, Euskadiko Xake
Federazioa eta Zubi Ondo Xake
Elkartea

19:00 "CANAL FOTOGRAFICO" ARGAZKI ERAKUSKETA

Argazki digitalak
Abenduaren 18ra arte
Kultur Etxeko erakusketa gelan

[16 BARIXAKUA]

19:00 MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur Etxeko sotoan
20:00 XV. NAZIOARTEKO XAKE
TXAPELKETAREN SARI BANAKETA
Kultur Etxean
Antolatzaileak: Udal Kirol
Patronatua, Euskadiko Xake
Federazioa eta Zubi Ondo Xake
Elkartea

SINOPSISIAK

«Aupa Etxebeste»



[17 ZAPATUA]

11:00 JAIOTZEN XIX. LEHIAKETARAKO IZEN EMATEA
14 urtetik beherako elgoibartarrentzako Parrokiako lokaletan (Trenbide aldeko sarreratik)

[18 DOMEKIA]

11:00 JAIOTZEN XIX. LEHIAKETA
Parrokiako arkupeetan
Sari banaketa: 13:00etan parrokiari
Jaiotzen erakusketa: Errosario kalean, 7 zenbakian

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN GABONETAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Egitaraua: "Todo son nubes" (R. de San Juan); "Bocetos del Caucaso" (I. Ivanov); "Silent Nighth" (F. Gruber); "Euskaria" (M. San Miguel); "White Christmas" (Berlin-Iwai) eta "Olinpic Fanfare and Theme" (J. Williams).
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

[20 MARTITZENA]

17:30 PARROKIKO JAIOTZAREN INAUGURAZIOA
Parrokiko kaperan
Antolatzailea: Elgojaitza

[21 EGUAZTENA]

19:00 MORKAIKOREN URTEKO BATZARRA
Kultur Etxean

[22 EGUEA]

14:15 IKASTOLAKO GABONETAKO JAIALDIA
DBHko ikasleen jaialdia, txikientzat

14:45 PILAR IKASTETXEKO GABONETAKO JAIALDIA
Pilar Ikastetxean

19:00 IKASTOLAKO GABONETAKO JAIALDIA
DBHko ikasleen jaialdia, gurasoentzat
Herriko Antzokian

[23 BARIXAKUA]

20:00 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN GABONETAKO KONTZERTUA
San Bartolome parrokiari

22:15 MIKEL URDANGARINEN KONTZERTUA
"Dana" azken diskaren aurkezpena
Herriko Antzokian

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Aupa Etxebeste»

2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:30-22:15
4, domekia: 19:30-22:15
5, astelehena: 22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
«Torrente 3»
8, eguea: 19:30-22:15
«The soul of a man» (Z.K.)
15, eguea: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Harry Potter»

2, barixakua: 19:30-22:15
3, zapatua: 17:00-19:30-22:15
4, domekia: 17:00-19:30-22:15
5, astelehena: 19:30-22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
7, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El jardinero fiel»

2, barixakua: 19:30-22:15
3, zapatua: 17:00-19:30-22:15
4, domekia: 17:00-19:30-22:15
5, astelehena: 19:30-22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
7, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«The Soul of a man» (Z.K.)

Zuzendaria: Telmo Esnal eta Asier Altuna.
Antzezleak: Elena Iureta, Ramon Agirre.

Etxebestetarrak, oporretan irten behar diren egun berean, diru gabe geratzen dira. Herrikoen aurrean itxurak mantentzearen etxean gordeta pasako dituzte oporrak. Itxurakeriak alde batera laga eta, euren arteko gezurrak eta miseriak elkarri aurpegiatu ondoren, bizitzako oporrik onenak pasako dituzte. XXI. Mendeko euskaraz egindako lehen luzemetraia pantailaratu du Esnal Altuna bikoteak; "Txotx", "40 ezetz" eta "Topeka" laburmetraien ostean, filmatu duten lehen luzemetraia da.



Zuzendaria: Win Wenders.

Antzezleak: Chris Thomas King, Keith B. Brown. Bluesean jarri ditu begiak eta belarriak Wenders alemaniarrek. Skip James, Blind Willie Johnson eta J.B. Lenoir, zuzendariaren artista gogokoenen bizitzan eta musika ekarpenean arakatzen du filmak. Musikako izar mordoaz azaltzen da: Beck, T-Bone Burnett, Nick Cave and The Bad Seeds, Vernon Reid, Alvin Youngblood Hart, Lou Reed, The Jon Spencer Blues Explosion, Cream eta John Mayall, besteak beste. Arima Beltzako kide batzuek pieza batzuk joko dituzte emanaldia hasi aurretik.

Atzera begira



1964 urteko erretratu zahar hau **Petra Carrascok** laga digu. Argazkian ageri diren gehienak Altzolan bizi dira, kanpotarrak izan arren, gaur egun, herritar eginak daude. Koadrila honek txikiteorako ohitura handia zeukan. Garai hartan gaur baino taberna gehiago zegoen Altzolan! Gaur egun txikiteorako ohitura asko galdu da, baina lehen oso ohikoa zen. Mutil hauek askotan Elgoibarrera ere etortzen ziren txikiteora. Argazkia Trinidadere jaietako tonbola aurrean aterata dago. Ikusten den bezala, ez zaie umorerik falta, tonbolan tokatu zitzaizen garrafoi eta guzti, oso ondo pasatu zuten egun honetan. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: **Juan Francisco Santaren, Jose Alejandro Garcia, Anjel de la Horra, Aurelio Galarraga (t), Fernando Mancisidor, Jose Chamorro eta Julian Larrañaga.**

"TERTULIAK" PROGRAMARAKO EUSKALDUN ZAHARRAK BEHAR DIRA

asteazkordetik euskara ikasleekin tertulian jarduteko.

Animatzen zaretenok deitu **943-74 16 26 telefonora**

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte eta Elgoibarko UDALA



ETXEBIZITZEN SALMENTA

2. FASEA
HASTERA
GOAZ



MAALA
BIZIGUNEA



Salmenta bulegoa:
Bernardo Ezenarro, 2

 **943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.**

mikel urdangarin



*diskoaren
aurkezpena*



Abenduak 23, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



Euskara
Saila



Foru
Aldundia



Eusko
Jaurerria

Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (Euskara Sailean) goizez

GEROKOA AURREIKUSPEN PLANA, BGAE

Geroan pentsatzeak irabaziak emango dizkizu orain.

Dasta ezazu zerga-arintze hoberenaren ahogozoa

30 PIEZAKO
PORTZELANAZKO BAXERA.



ALTZAIRU
HERDOILGAITZEZKO TXIGORGAILUA.

Egin zure diru ekarpenak abenduaren 30a baino lehen eta Delicatessen produktuen kaxa hau edo opari oparo hauetakoren bat eraman dezakezu; eta zure Plana gurera ekartzen baduzu, oso hobari interesgarria jasoko duzu.